

## **Lehiaren Euskal Agintaritzak, ehun espediente inguru jasotzen dituen 2018ko memoria aurkeztu du Legebiltzarrean**

2018-2022 Plan Estrategikoan aurreikusitako 38 ekintza ildoetatik %90 jarri da martxan.

2018an Lehiaren kontrako ustezko 37 jokabide eta lehia sustatzeko 63 jarduketa aztertu ziren.

Lehiaren sustapena indartzeko jarduketan artean, complianceri buruzko gidaren argitalpena azpimarratu behar da.


BILBON, 2019ko irailaren 25ean / **2018. urtean zehar, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) 100 espedientetan egin zuen lan –aurreko urtean baino %10 gehiago–. Espediente horietan defentsa, lehiaren sustapen eta inpugnazio eginkizunak bete zituen, Alba Urresola presidentek, Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean egin duen agerraldian gaur azaldu duenez. Elkargo profesionalak eta kontratazio publikoek zentratu zuten arreta kasuen %38, eta administrazio erregulazioa hobetzerazuzendutako txosten arauemaileak %11 izan ziren. Turismoaren eta garraioaren sektoreek hartu zuten kasuen %15, eta kopuru horretan islatzen da, baita ere, plataforma digitalak agertzetik sortutako arazoa.**

Bere esku-hartzean Alba Urresolak azaldu duenez, “LEA/AVCren jarduera 2018-2022 epealdirako onetsitako Plan Estrategikoak arautu du. Planak 4 helburu estrategiko handi eta 38 ekintza ildo identifikatzen ditu. 2018an, ekintza ildoak, Planean aurreikusitako 38 ildoen %90 martxan jartzeko aukera eman duten ekimenen bitartez ezarri dira.

**Lehiaren defentsarako** lanean –tramitazio prozedura zorrotzaren menpe– lehiaren kontrako ustezko 37 jokabide aztertu ziren. Horietatik 9k Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpena jaso zuten. Espedienteen artean azpimarragarria izan zen autoeskolen sektoreko kartela, kontsumitzaileei aplikatzen zizkieten tarifei buruzko akordioa dela eta 4 enpresa zigortu baitziren.

Elkargo profesionalak eta kontratazio publikoa ia defentsa kasuen erdian egon ziren, 2017ko antzeko proportzioan.

Halaber, bere eskumenak gauzatu, Agintaritzak 4 operadore ekonomikoren egoitzak ikuskatu zituen. Horrez gain, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritu zen, 2 enpresatara zuzendutako ikuskapenean.



LEA/AVCk ezarri dituen zehapenei dagokienez, 2018an, Euskadiko Diruzaintza Orokorrak –Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren diru-bilketaren arduradunak– 4.800.000 € inguru jaso zituen, kontzeptu hori dela eta.

**Lehiaren sustapen jarduerari edo *Advocacy*** izenekoari dagokionez, Agintaritzak 63 espedientetan egin zuen lan –2017an baino 15 gehiago–, eta presentzia garrantzitsua izan zuen kontratazio publikoari, arautegiari eta elkargo eta zerbitzu profesionalei buruzkoetan. LEA/AVCk, enpresa sektorearen eta herritarren kontsulta ugari ere erantzun zituen.

Azpmarratu behar da LEA/AVCk gaurkotasuna duten gaiei buruzko zenbait azterlan argitaratu eta zabaldu zituela: “Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko Gida”; “Alokairu turistikoko etxebizitzaren erregulazioaren praktika hobeei eta analisi konparatiboari buruzko azterlana”; “Lehia prozesuan datu asko erabiltzearen eragina”; eta “Clemencia, kartelen kontrako borroka” triptikoa.

Amaitzeko, aurrera eramandako jarduera instituzionalaren barruan, CNMCK eta Autonomia Erkidegoetako agintariak parte hartzen duten Lehiaren Sarean izandako parte hartzea azpmarratu behar da. 2018an, LEA/AVCk Lehiaren Defentsarako Batzordean eta Lan taldeen 8 bileratan hartu zuen parte. 4 agerraldi egin zituen Eusko Legebiltzarrean, 30 topaketa instituzional egin ziren eta hitzaldiak eman ziren 6 konferentzietan.

### **2019ko ekintza plana**

2019an, LEA/AVC bere Plan Estrategikoaren barruan martxan dauden jarduketa ildoak jarraipena ematen ari da, lehiaren defentsa eta sustapen jardueren arteko etengabeko oreka bilatuz.

Helburu estrategikoen erakundea finkatzea eta ikusgai bilakatzea, merkatuetako lehia defendatzea, lehiaren sustapena indartzea eta bikaintasun operatiboa lortzea bilatzen dute.

Horrela, gauzatzen ari diren jarduketaren artean, EAE barruko ekintza instituzionala indartzea, lehiaren beste agintaritza batzuekin lankidetzan aritzea, nazioarteko foroetan presentzia izatea eta komunikabideetan izan beharreko posizionamendua bultzatzea azpmarratu behar dira. Merkatuetan lehia defendatzeko xedez, kolusio arriskuan dauden merkatuen zainketa handitzen eta segurtasun juridikoa indartzen egiten da lan. Lehiaren sustapena indartzeko jarduketaren artean azpmarragarriak dira complianceri buruzko gidaren argitalpena eta unibertsitateekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan hedapen jarduera berrien programazioa. Bikaintasun operatiboa lortzeko, kudeaketa profesionalizazioa eta berritailera zuzendutako jarduketak ari dira egiten.



### **Lehiaren Euskal Agintaritza**

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoetarako dagokienez.